



ZENBAIT EGILE Psikopatologia

Eibar : Udako Euskal Unibertsitatea, 2014
410 or. ; 25 cm
ISBN: 978-84-8438-458-4

Erreseina honetako liburuan psikopatologiari buruzko azterketa sakona egiten da. Euskal Herriko Unibertsitateko, Psikologia Fakultateko, hainbat alorreko irakasle-ikertzaile batzuen kolaborazioaren eta sinergiaren emaitza da, Osasunaren psikologian urte mordoak ikertzen dihardutenak.

Liburua osatzen dute psikopatologiarako sarrera batek eta hainbat nahaste aztertzen diren 12 atalek, aldarte nahasteak, barne-hesturako nahasteak, eskizofrenia, nahaste somatomorfo eta disoziatiboak, loaren nahasteak, substantzia psikoaktiboekin loturiko nahasteak, elikaduraren nahasteak, nahaste neurokognitiboak, arretaren alterazio nahasteak, parafiliak, abusu sexuala eta genero-identitatearen nahasteak, bulkaden kontrolaren nahasteak eta psikopatologiako zeinu eta sintomak, hurrenez hurren. Bukatzeko, azkeneko atalean aurrez aztertutako nahaste guztien laburpen azkarra egiten da. Atal bakoitzak, berriz, barne hartzen dituen kontzeptuen eta konstruktuen azalpenak jasotzen ditu. Psikologia Klinikoan prestatzen ari den ikasleak erruz eskertuko ditu atal bakoitzaren bukaeran proposatzen diren lan praktikoak. Proposatzen diren atazak oso dinamikoak dira: testu eta kasu analisiak, ikus-entzunezko euskarriak erabiltzen dituzten ariketak, hausnartzeko galderak, esperientziara eramateko ariketak eta abar, bakarka zein taldeka burutu daitezkeenak. Aipatu beharra dago, batzuetan baita praktika klinikorako eta ikerketarako oso erabilgarriak diren galde-sortak ere eskaintzen direla atal praktiko horretan.

Autoreek informazio eguneratua, fidagarria eta egiaztatua islatu dute testu osoan. Lerro lodiz azpimarratzea merezi du kontutan hartu izana Amerikako Psikiatria Elkartearen DSM nahaste psikologikoen azken sailkapen diagnostikoa, DSM-5, hain zuzen ere. Eta batez ere argitu izana nahaste bakoitzari buruz DSM-IV eta DSM-5en artean dauden irizpideen desberdintasunak.

Aurreneko atalean, esan bezala, psikopatologiarako sarrera bat egiten da. Lehenengo eta behin, psikopatologia definitzen da eta honekin lotura estua duen izaera normalaren eta anormalaren kontzeptualizazioa eta zein diren pertsonaren ezaugarriak normalizat edo anormalizat hartzeko irizpideak argitzen dira. Ondoren, psikopatologiako ereduak hiltzen zaie. Nahaste mentalak aztertzeko eredu biologikoak, portaeraren ereduak, eredu kognitiboak, eredu estatistikoa, eredu sozial eta pertsonaren artekoak eta eredu subjektiboaren edo pertsona barneko irizpideak jasotzen dira. Bukatzeko, nahasteen sailkapen motak azaltzen dira. Sailkapen-sistemei esker pazienteari buruzko informazioa antolatzeko eskema bat badugu, nahastearen ibilbidea aurrean dezakegu, profesionalen arteko komunikazioa errazten dugu, ikerketa bideratu dezakegu, nahastearen etiologia aztertu, eta haren terapiak hitz egin. Azken 60 urte hauetan eragin gehien izan duten sailkapen-sistemak aztertzen dira liburuan; hots, Amerikako Psikiatria Elkartearen DSM eta Osasunaren Mundu Erakundearena, ICM.

Bigarren atalean aldarte-nahasteak aztertzen dira. Aldarte-nahastei nahaste depresibo, nahaste afektibo edo neurosi depresibo ere deitu izan zaie. Umorearen asaldura indartsua eta iraunkorra denean eta pertsonaren moldaera eragozten duenean, aldarte-

nahasteaz hitz egiten da. Liburuan polo bakarreko aldarte-nahasteak, depresio nagusiaren nahastea eta nahaste distimikoak, alegia, eta nahaste bipolarrak aurkezten dira. Ondoren, aldarte-nahasteen maiztasuna, kausak eta tratamenduak deskribatzen dira. Atalarekin amaitzeko, suizidioaren berrikuspen labor bat egiten da.

Hirugarren atalean barne-hersturari jartzen zaio arreta. Barne-herstura emozio egoki eta normala da, baina patologikoa bihurtzen da gehiegizkoa denean, sufrikario-iturri bihurtzen denean, pertsonari eguneroko bizitza aurrera eramateko zailtasunak sortzen dizkionean. Barne-herstura patologikoari lotuta dauden nahaste nagusiak lantzen dira liburuan. Esate baterako, barne-herstura orokortuko nahastea, izu-ikararen nahastea, agorafobiarekin eta agorafobiarik gabe, fobia espezifikoak, fobia soziala, nahaste obsesibo-kompulsiboa, estres akutuko nahastea eta trauma osteko estreseko nahastea.

Laugarren atala eskizofrenian zentratzen da. Disfuntzio kognitibo eta afektiboen espektro zabala biltzen du eskizofreniak. Emozio desegokiak, portaera eta hizkera desantolatua eta eldarnioak edo haluzinazioak agertzen ditu nahaste hori duenak. Lehenengo eta behin, eskizofreniaren deskribapen klinikoa ematen da. Ondoren, DSM-IV-TRK proposatutako sailkapen sistema jarraituz, eskizofrenia motak ezagutzera ematen dira; hots, eskizofrenia paranoidea, eskizofrenia hebefrenikoa edo desantolatua, eskizofrenia katatonikoa, eskizofrenia bereizi gabea eta hondarreko eskizofrenia. Hauetaz gain, baita nahaste eskizofreniformea, nahaste eskizoafektiboa, eldarniozko nahastea eta nahaste psikotiko laburra nahasteak ere deskribatzen dira. Ondoren, eskizofreniaren prebalentzia, garapena, etiologia eta diagnostiko diferentziala azaltzen dira. Amaitzeko, eskizofreniaren tratamenduaren berrikuspina egiten da.

Bosgarren atalean nahaste somatoformo eta disoziatiboak lantzen dira. Nahaste somatoformoa duenak hainbat sintoma eta kexu fisiko agertzen ditu, eta pentsatzen du gaixotasun mediko bat edo disfuntzio fisiko bat duela; baina nahaste horretan ez da gertatzen sintoma horiek azaltzen dituen patologia fisikorik edo oinarri fisiologikorik. Liburuan hipokondriasia, somatizazio-nahastea, konbertsio-nahastea, min-nahastea, gorputz dismorfikoren nahastea, espezifikatu gabeko nahaste somatoformoa eta nahaste faktizioak ezagutzera ematen dira. Disoziatibo-nahasteetan eten egiten da pertsonaren jardueraren integritatea, eta hautematearen, oroimenaren, kontzientziaren eta identitatearen nahasteak gertatzen dira. Nahaste hori dutenek ahaztu egiten dute nor diren eta nondik datozen, eta bi identitate edo gehiago agertzen dituzte. Liburuan zehazten denez, nahaste honetako sintomak izan daitezke portaerei, afektuei, kognizioei edo sentipen fisiologikoei dagozkienak. Honako hauek bereizten dira: despertsonalizazio-nahastea, disoziazio-amnesia, disoziazio-ihesa eta identitate disoziatuaren nahastea.

Seigarren atala loaren nahastei buruzkoa da. AEBko Psikiatria Elkartearen DSM-III eskuliburuaren eranskinean, loaren nahasteak agertu ziren, baina DSM-IV izan zen loaren nahasteen kategoria-diagnostikoa lehenengo aldiz jaso zuena. Batetik, loaldiko faseak deskribatzen dira eta bestetik, loaren nahasteen sailkapenei heltzen zaizkie. Azken hauei dago kienean, hauek dira liburuan aztertzen direnak: loaren nahaste primarioak: disomniak eta parasomniak, beste nahaste mental batekin erlazionaturiko loaren nahasteak, gaixotasun mediko baten ondorioz sortutako loaren nahastea eta substantzien kontsumoak eragindako loaren nahastea.

Zazpigarren atalean substantzia psikoaktiboekin loturiko nahasteak lantzen dira. Substantzia psikoaktiboen abusua dagoenean, substantzia horiek modu jarraituan eta kantitate handitan kontsumitzen dira; horrek portaera arriskutsuak edo legearen kontrakoak eragiten ditu, eta lanaren, harremanen edo osasunaren arloetan ondorio negatiboak izaten ditu. Substantzia horiez intoxikatua dagoenean portaera arriskutsuak agertzen ditu pertsonak, eta arazo sozialak, psikologikoak edo lan-arazo jarraituak izaten ditu. Atala droga-moten azterlanarekin hasten da. Hainbat droga depresoreak (alkohola, opiazioak eta barbiturikoak), droga estimulatzaileak (kokaina, anfetaminak, nikotina, kafeina), LSD eta beste haluzinogenoak (LSD, Marihuana) aztertzen dira. Patologia bikoitza eta komorbilitatea argitzen da eta, azkenik, drogekiko mendetasunaren kausak eta tratamendua azaltzen dira.

Zortzigarren atalak azken urteotan arreta soziala handia bereganatu duen nahaste psikologikoaz dihardu, elikaduraren nahastez, hain zuzen ere. Lehenengo paragrafoetan gaia kokatzen da eta ondoren, elikadura-nahasteen portaera, alderdi kognitiboa, alderdi emozionala eta fisiologikoa deskribatzen da. Jarraian, elikadura nahaste kuantitatiboak aztertzen dira. Batetik, gehiegi jateagatik gertatzen diren elikadura-nahasteak (bulimia eta betekada nahastea) eta bestetik, gutxiago jateagatik gertatzen direnak (anorexia). Amaitzeko, elikaduraren nahaste kualitatiboak aztertzen dira. Merizismoa, alotriofagia edo pika eta ortorexia dira.

Bederatzigarren atala nahaste neurokognitiboei buruzkoa da. Garunak erasoak jasotzen ditu, barnetik eta kanpotik. Barnekoen artean daude, adibidez, jairo aurretiko egitura-hutsuneak. Kanpoko erasoen artean sartzen dira traumak eta kolpeak. Garuna kaltetua denean, aldaketa kognitiboak gertatzen dira. Atalari hasiera ematen zaio demenziak edo nahaste neurokognitiboen sakoneko azterketarekin. Jarraian, nahaste neurokognitibo motak deskribatzen dira: Alzheimerren gaixotasunak eragindako nahaste neurokognitiboa, Lewyren nahaste neurokognitibo nagusia, demenzia edo nahaste neurokognitibo fronto-tenporala, demenzia baskularra edo nahaste neurokognitibo baskularra, baldintza mediko orokorrek eragindako demenzia, substantzien edo sendagaien kontsumoak eragindako nahaste neurokognitiboa edo demenzia iraunkorra, sindrome amnesikoa eta deliriuma.

Hamargarren atalean arretaren alterazio eta nahasteak aztertzen dira. Arreta eta kontzentrazioa elkarri loturik daude. Beraz, arretaren eta kontzentrazioaren psikopatologiak elkarrekin doaz. Haiekin lotuta, hasierako paragrafoetan aditzera ematen dira *hiperprosexia*, gehiegizko kontzentrazioa, *hipoprosexia*, arreta-gaitasuna gutxitua, *aprosexia*, arreta jartzeko gaitasunik eza, eta *seudoaprosexia*, arreta jartzeko ez da gai, baina arreta beste alderdi batean fokatua duelako. Ondoren, bete-betean oso ezaguna den arreta-gabezia eta hiperaktibitatea nahastea (AGNH) aztertzeari ekiten zaio. Aurrenez, garapen historikoa eta AGNHaren deskribapena eta azpimotak lantzen dira. Haien artean bereiz daitezke arreta-gabezia bakarrik duen nahastea, nahaste hiperaktibo-oldarkorra eta arreta-gabezia, hiperaktibitatea eta oldarkortasuna konbinaturik. Jarraian, AGNHaren lehen mailako ezaugarriak deskribatzen dira; hots, arreta-gabezia, hiperaktibitatea, oldarkortasuna eta inhibizioaren kontrol-gabezia eta funtzionamendu kognitiboa erregulatzeko funtzio exekutiboetan gabeziak. Baita nahaste elkartuak, komorbilitatea, prebalentzia eta diagnostiko diferentziala ere jorratzen dira. Ondoren, AGNHaren ebaluzio-prozedurak hartzen du garrantzia. Guraso eta irakasleentzako ebaluzio-eskala nagusiak aipatu eta haien iruzkinak egiten dira. Atalari amaiera emateko, AGNHaren tratamenduari heltzen zaio. Tratamendu biokimikoa, portaera aldatzeko teknikak, tratamendu konbinatua eta tratamendu kognitibo-konduktuala xehetasunez deskribatzen dira.

Hamaikagarren atalean parafiliek eta genero-identitatearen nahasteak lantzen dira. DMS-5ek bereizi egiten ditu parafiliek eta nahaste parafilikoak. Parafiliek ohikoak ez diren bulkada eta jarduera sexualak dira; ezin dira, beste gabe, nahaste mentalizat hartu; parafiliek dutenek ez dute hasieratik ezinbestez behar laguntza psikologikorik. Aldiz, nahaste parafilikoa dutenek ondoeza sentitzen dute, edo ondoeza eragiten diete beste pertsona batzuei; ondoez edo hondamen hori pertsonaren bizitzako hainbat arlotan agertzen da. Liburuak hainbat parafiliek mota aztertzen ditu. Exhibizionismoa, fetitixismoa, frotteurismoa, paidofilia, masokismoa, sadismoa, trabestismoa, voyeurismoa eta parafiliek espeziifikatu gabekoak (nefrofilia, koprofilia, telefono-eskatologia). Jarraian, abusu sexuala lantzen da. Kontaktu sexual derrihortua. Gutxienez pertsona bat bada kontaktu hori nahi ez duena. Abusu sexuala gertatzen da intzestuan, borkaketan eta pedofilian. Ondoren, parafilien epidemiologia, etiologia eta esku-hartze terapeutikoa azaltzen dira. Atalari amaiera emateko, genero-identitatearen nahasteak deskribatzen dira.

Hamabigarren atalak bulkaden kontrolaren nahastei buruz dihardu. Nahaste hauek dituzten pertsonak zailtasunak dituzte bulkada, tentaldi, desira edo premia espontaneo batzuei eusteko, beren portaerak ingurukoentzat edo beren buruentzat kalterako direla jakin arren. Ekintzara pasatu aurretik kitzikatuak eta euforiko agertzen dira; ekintza egin eta gero, erlaxaturik eta asebetetik gelditzen dira; ondoren hersturaz edo depresioz betetako

fase batean murgiltzen dira, eta lotsaturik ageri dira. Liburuan bulkaden kontrolaren nahaste motak aztertzen dira: erosle eta diru-xahutzaile konpultsiboak, joko patologikoa, kleptomania, piromania, eztandako nahaste etenaria, onikofagia, elikadura-nahasteak, trikotilomania eta nahaste obsesibo-kompulsiboa.

Hamahirugarren atalean, psikopatologiako zeinu eta sintomak garatzen dira. Lehenengo eta behin, kontzientziako eta identitateko asalduek deskribatzen dira. Kontzientziaren nahasteek hitz egitean, bereizi egiten ditugu kontzientziaren asalduek kuantitatiboak, kontzientziaren asalduek kualitatiboak, eta norberari eta inguruneari buruzko kontzientziaren nahasteak. Kontzientziaren asalduek kuantitatiboan artean honako hauek bereizten ditu liburuak: obnubilatua dagoena, lozorroan dagoena, koma-egoeran dagoena eta gehiegizko zelatatzea duen pertsona. Kontzientziaren asalduek kualitatiboei dagokionez, honako hauek aipatzen dira: egoera krepuskularrean dagoena, harridurak hartua duen pertsona eta nahas-mendua/eldarnioa duen pertsona. Norbere buruaren kontzientziako asalduei dagokionez, gorputz-niaren edo gorputz-eskemaren kontzientziaren nahasteak, Ni psikikoaren kontzientziaren nahastea eta inguruko munduaren kontzientziaren nahasteak deskribatzen dira. Jarraian, arretaren asalduek eta hautematearen asalduek aztertzen dira. Hautematearen distortsioa gertatzen denean, guregandik at dagoen kinada bat hautematen dute zentzumenez, baina kinadaren ezaugarriek ez dagoen moduan hautematen dute. Hautematearen hainbat distortsio garatzen dira liburuan: kinaden intentsitatearen hautematean anormaltasunak, nolakotasun hautematearen anormaltasunak, hautematearen integrazioaren anormaltasunak, ilusioak eta metamorfopsioak: tamaina eta/edo formaren hautematearen anormaltasunak. Hautemate-iruzurrak baita kontutan hartzen dira ere liburuan. Haluzinazioak sasihautemateak edo irudi anormalak, hain zuzen ere. Jarraian oroimenaren arazoei heltzen zaie. Oroimenaren zeinu eta sintomen artean, oroitzapenaren asalduek eta ezagutzaren asalduek bereizten dira. Pentsamenduaren nahasteak badu bere lekutxo atalean. Pentsamenduaren formaren eta edukiaren nahasteak bereizten direlarik. Amaitzeko, mugimenaren nahasteak lantzen dira, non deskribatzen diren gehiegizko eta gutxiegi mugimenduak. Aipatu beharra dago, aurreko ataletan ez bezala, praktika lantzeko azken sekzioa faltan bota dugula atal honetan.

Liburuari bukaera emateko, azkeneko atalean aurrez aztertutako nahaste guztien laburpen azkarra egiten da. Eskertzekoa da autoreek atal honetan bereiziki, nahaste bakoitzean DSM-IV eta DSM-5en artean dauden irizpideen desberdintasunak islatzeko egin duten esfortzua. Azkar irakurri daitekeen atala osatu dute eta irakurleak aztertutako nahaste bakoitzaren ideia orokor bat hartzeko eta zalantzak argitzeko oso lagungarria da.

Oro har, Haranburu, Balluerka, Gorostiaga eta Guerra-ren *Psikopatología* (2014) oso ondo egituraturatutako liburua da. Edukiek oso maila altua dute eta oso didaktikoa da. Materia bera jorratzen duten beste oinarriko eskuliburuarekin konparatzen badugu, ez du aski ezagunak diren beste lanen minik. Esate baterako, gutxi batzuk aipatzeagatik, *Introducción a la psicopatología y la psiquiatría* (Vallejo, 1997), *Manual de Psicopatología I y II* (Belloch, 2008) edota *Psychopathology and Psychotherapy: DSM 5 diagnosis, case conceptualization, and treatment* (Sperry, Carlson, Sauerteber eta Sperry, 2014) lanen pare koka dezakegu.

Laburbilduz, zalantzarik gabe *Psikopatología* (Haranburu et al., 2014) oso kalitate oneko liburua da, eta estimatua oso euskal hiztunen artean, izan ere, euskaraz eta jakintza arlo horretara eskainitako material gutxi dago eskuragarri, eta oker ez banago, hauxe da psikopatologia gaia berariaz jorratzen den lehenengo saiakera. Bestalde, esan beharra dago psikologiako oinarriko eskuliburutzat hartu dezakegula *Psikopatología*. Psikologia Klinikoko aritzen den edozein psikologok beharrezkotzat jo beharko lukeena. Guztiz gomendagarria praktika klinikorako, irakaskuntzarako zein ikerketarako.

Alexander Muela